

IRAKURKETA-GIDA

# Jara, bikiak eta bikoteak

Jasone Osoro

# Jara, *bikiak eta bikoteak*

Jasone Osoro



## LIBURUAREN AURKEZPENA

### Egilea

Jasone Osoro Igartua Elgoibarren jaio zen 1971n. Kazetaria da lanbidez eta prentsan aritu izan da, bai irratian, bai telebistan.

Lehenbizi helduentzat idazten hasi zen Jasone, baina 2001ean Jara pertsonaia sortu eta izen bereko liburua idatzi zuen gazteentzat. Liburu horrek berehalako arrakasta lortu zuen nerabeen artean. Gero beste bat etorriko zen, eta beste bat... Gaur egun lau liburuk osatzen dute *Jara* saila: *Jara*; *Jara, bikiak eta bikoteak*; *Jara Bartzelonan* eta *Jara live*. Liburu hauek hainbat sari eta aipamen jaso dituzte: Liburu Gaztea, JUUL sariak...

Jara sortu zuenetik Jasone erreferentzia bilakatu da baita gazte literaturaren alorrean ere.

### Liburua

Estreinako musuaren ostean, Jararen sentimenduak nahasirik daude. Urko maitatu du, baina estreinako musua ez da berak imajinatu bezain goxoa izan. Gainera, bizitza osoa Urkoren ondoan imajinatzeak bertigo apur bat ematen dio, eta mutil berriak ezagutzeko gogoia ere badauka. Nora eta Xabat anai-arrebak ezagutzen dituenean Urkorekiko dituen sentimenduak are gehiago nahasiko dira. Iritsi berriak Jara eta Ihintzaren arteko tirabiren iturburu izango dira: batetik, bi lagunek Xabat mutil katxarroan jarriko dute begia eta maitasun kontuetan arerio bilakatuko dira; bestetik, Jara eta Ihintza lagun minak bi izatetik hiru izatera pasatuko dira, eta horrek ere zeloak eta haserrea eragingo ditu beraien artean.

Zer gertatuko da Jararen eta Urkoren arteko harremanarekin? Lortuko al dute Jarak eta Ihintzak beren arteko liskarrak konpondu eta lehen bezain lagun onak izatea?

## Zergatik irakurri liburu hau?

Zalantzak, maiteminak, zeloak... gaztetasuna pil-pilean dago Jararen abentura berrian. Eleberriak oso ondo islatzen du gazteen mundua, haien hizkera, haien interesak eta kezkak eta familiarekiko nahiz lagunetikiko harremanak. Protagonistak DBHko ikasleak dira; ikasleek erraz identifikatuko dute beren burua haiekin. Jara eta gainontzeko pertsonaien ekintzak behatuz eta baloratuz, beren buruaz eta inguruneaz hausnarketa egitea ahalbidetuko die ikasleei. Nerabezaroko kezkak eta amodioaren gazi-gozaak kontagai dituen eleberri honek hasieratik bukaeraraino harrapatuko ditu irakurle gazteak.

## Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

### ARLOKO GAITASUNAK

#### Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Literatura gozamen-iturritzat hartzea, euskaraz eta haren hizkuntza sistemaz gozatzeko.

Irakurritakoa ulertzea, interpretatzea eta balioestea, norberaren sentsibilizazio estetikoa garatuz.

Ideiak eta sentipenak komunikatzeko gaitasuna garatzea.

Literatura-testua mundua ulertzeko leihua izatea.

Hizkera formala eta lagunartekoa bereiztea eta bakoitza dagokion esparruan erabiltzea, eta euskarak lagun artean komunikatzeko baliabideak eskaintzen dituela ulertzea.

#### Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela ulertzea eta pertsona horiekin era baketsuan elkarlanean aritzea zeinen garrantzitsua den ikastea (familian, eskolan, herrian...).

Giza eskubideak izatea norberaren bizitzako eta gizarteko ekintzei eta egoerei buruzko iritziak osatzeko erreferente nagusiak.

Gizartean parte-hartzeko begiruneko, justizia sozialeko eta elkartasuneko jokabideak lantzea.

#### Zientziarako gaitasuna

Norberaren gorputzaren funtzionamendua eta gorputzak jasaten dituen aldaketen zergatia ulertzea.

Mendekotasuna sortzen duten substantzien inguruko pentsamendu kritikoa garatzea.

## **ZE HAR-GAITASUNAK**

### **Elkarbizitzarako gaitasuna**

Gelako ikaskideen eta lagun taldeko pertsonen artean egon daitezkeen desberdintasunak errespetatu, ulertu eta aintzat hartzea.

Adiskidetasunaren eta pertsonen arteko harreman positiboen onuraz jabetzea.

Beste kultura eta ohitura batzuk ezagutzea, besteak ulertzen eta errespetatzen ikasteko.

Elkarbizitzaren arauak betetzea, gizarte-harremanetan ongizatea eta harmonia sustatzeko.

Indiako kulturaz baliatuz, kultura-aniztasuna errespetatzeko jarrera sustatzea.

### **Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna**

Geure burua ezagutzea, banako gisa dugun ahalmen guztia baliatzeko eta zailtasunei aurre egiten jakiteko.

Erronka berrien aurrean, ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea era ausart eta eraginkorrean burutzea.

Arazoak testuinguru errealean kokatzea eta arazo horien konpontzeko ekintzailetza-prozesua erabiltzea.

### **Izaten ikasteko gaitasuna**

Erabakiak hartzean, ekintzen ondorioak bere gain hartzeko ardura garatzea.

Autoestimua garatzea, hau da, norbere buruaren gaineko balioespen positiboa eta errealista.

## **Balioetan hezte**

Gainontzeko nerabe gehienek antzera, zalantzaz eta kontraesanez beterik daude liburuko protagonistak ere, eta egunetik egunera egoera berriei aurre egin beharrean aurkituko dute beraien burua. Inbidia, zela eta maitasun kontuak tarteko, erabakiak hartu eta erronkei aurre egiten ikasi beharko du Jarak, eta horrek guztiak bere burua hobeto ezagutzen eta pertsona bezala hazten lagunduko dio. Ika-mika eta haserrearen gainetik, une zailetan adiskideak eta familia alboan izatea zein garrantzitsua den egiaztatu ahal izango du Jarak beste behin ere.

# JARDUEREN PROPOSAMENA

## Irakurri eta ulertu

### Nor da Jara? · 1. jarduera

*Jara, bikiak eta bikoteak* irakurtzen hasi aurretik, oso baliagarria izango da ikasle guztien artean *Jara* saileko lehen liburua (*Jara*) gogoratzea: pertsonaia nagusiak, gertakari garrantzitsuenak, istorioa zein puntutan amaitu zen...

Behin liburua irakurrita, lanean hasteko, Jarari buruzko test sinple bat egitea proposatuko diegu ikasleei.

### Nora eta Xabat · 2. jarduera

Herrira iritsi berri diren anai-arrebek pisu handia dute istorioaren jarraipenean. Zuzenean edo zeharka, Norak eta Xabatek zerikusi handia izango dute Jarak bi-ziko dituen egoera berrietan: zalantzak, zeloak, inbidiak, bere lagun minarerekiko haserrea...

Pertsonaia bi berri hauek ezagutu izanak Jara, Ihintza eta Urkorengan zer eragin duen azaldu beharko dute ikasleek.

### Une erabakigarriak · 3. jarduera

Fitxa honi esker, ikasleek argumentua ulertu duten egiaztatuko dugu. Lehenik, narrazioko gertaera nagusiak nola ebazten diren azaldu beharko dute. Ondoren, liburuaren azaleko irudia aztertu eta argumentuaren korapiloan funtsezkoa den une horretan zer gertatzen ari den azalduko dute.

Jarduera honetan, irakurmena eta laburbiltzeko gaitasuna landuko dituzte ikasleek.

### Esaldi eginak · 4. jarduera

Eleberrian, ugariak dira esaldi eginak eta esamoldeak, eta horien esanahia zehaztea komeni da. Testuingurua edo hiztegia baliatuz, ikasleek esamolde horien esanahia asmatu beharko dute.

Jakintzat eman ohi dugu gazteek behar bezala ulertzen dituztela termino eta esamolde arruntak. Dena den, maiz, dakitena ez da zuzena, eta horren ondorioz, esamoldeak gaizki erabiltzen dituzte. Proposamen honen helburua irakurle gazteen lexikoa zabaltzea da.

## Sentimenak pil-pilean · 5. jarduera

Jarak eta Ihintzak 13 urte dituzte. Aro zail batean sartzen hasi dira, eta sentimen-  
duak korapilaturik, borborka dituzte, eztanda noiz egin zain. Jarduera honetan,  
liburuko zenbait pasarte irakurri eta une bakoitzean nola sentitzen diren azaltzea  
proposatuko diegu.

Jarduera honetan, ikasleak emozio positiboak zein negatiboak deskribatzen  
trebatuko dira.

## Jararen hitz gurutzatuak · 6. jarduera

Jarduera ludiko bat proposatuko diegu ikasleei. Eleberriko xehetasun batzuk gogo-  
ratuz, erantzunak asmatu eta gurutzegrama osatu beharko dute.

## A ze oroimena! · 7. jarduera

Ikasleen ulermena egiaztatzeko eta haien memoria garatzeko jarduera bat propo-  
satuko diegu. Oraingoan, liburuko hiru elkarrizketa osatu beharko dute. Zer erant-  
zuten dute Norak, Ihintzak eta Urkok? Elkarrizketak behar bezala osatu dituztela  
egiaztatzeko, liburuko 71., 80., eta 85. orrialdeetara jo beharko dute.

Jarduera amaitutakoan, taldeka, antzeko pasarte gehiago aukeratu ditzakete, eta  
gainontzeko taldeak falta den zatia asmatzen ahalegindu.

## Jeloskor nago · 8. jarduera

Eleberriaren ardatzetako bat inbidia eta zeloak dira. Jarari Ihintza Xabatekin  
ikusteak tripak jaten dizkio. Norak Urko atsegin duela esan dionean, berriz,  
bihotzean ziztada bat nabaritu du.

Ikasleei emozio korapilatsu bat deskribatzeko eskatuko diegu: jeloskortasuna.  
Azkenekoz zeloak sentitu zituzten azken aldia gogoratu eta nola sentitu ziren  
azaldu beharko dute. Baliteke batzuek laguntza behar izatea. Horretarako, egin  
honelako galderak: Inbidia sentitzen duzu zure lagunik onena beste lagun batekin  
ikusten duzunean? Eta zure gustuko neska edo mutila beste batekin ikusten  
duzunean? Eta zure anai-arrebek zure gurasoen lausenguren bat jasotzen  
dutenean? Eta zure kirol taldeko kideren bat oso ona dela ikusten duzunean?...

## Iritziak eta aholkuak · 9. jarduera

Liburuko pertsonaiak beti ahalik eta hobekien aritzen saiatzen dira, baina  
batzuetan egoerek gainez egiten diete eta ezin izaten dute nahi luketen bezala  
jokatu. Jarduera honetan, ikasleek protagonisten lau jokabideren inguruan zer

iritzi duten azalduko dute. Egindakoa gaizki dagoela iruditzen bazaie, jokabide hori hobetzeko zenbait aholku ematea proposatuko diegu.

Jarduera amaitutakoan, ikasleen erantzunak alderatuko ditugu. Ziur aski, iritzi desberdinak izango dituzte eta eztabaida txikiak sortu ahal izango dira.

## **Kaixo, lagun!** · 10. jarduera

Etorkizun hurbilean Jara eta bere lagunekin zer gertatuko den imajinatu eta idaztea proposatuko diegu. Lehen gutunean, ikasleak Jararen azalean sartu eta Bartzelonan eman dituen lehen egunak nolakoak izan diren azalduko diote Ihintzari: Nolakoa da Bartzelona? Eta ikastetxe berria? Lagun berriak egin ditu? Urkoren eta Ihintzaren falta sentitzen du? Beste mutilen bat ezagutu al du? Bigarrena Ihintza izango balira bezala idatziko dute: Nobedaderik izan al da ikastetxean? Ihintzak eta Norak lagunak izaten jarraitzen dute? Nola dabil Urko? Australopitekus taldeak beste kontzerturik eman al du? Gutunak ahalik eta sinesgarrienak izateko, Jarak eta Ihintzak elkarrekin erabiltzen duten hizkerari erreparatu eta haren moldeari jarraitzea gomendatuko diegu.

Idazlearen paperean sartuz, ikasleek idazmena eta sormena garatuko dituzte jarduera honetan.

## **Ikertu**

### **Indiar ohiturak**

Jarak, Ihintzak eta ikasleek Indiako hainbat ohitura ezagutzeko aukera izan dute Nora eta bere familiari esker. Beste kultura eta bizi ohituren nondik norakoak ezagutzeak besteak ulertzen eta errespetatzen lagunduko die ikasleei. Beraz, horretan jarraituko dugu.

Hasteko, liburuan aipatzen diren ohiturak gogoratzen saiatuko gara denon artean: saria, intsentsua, tea, Noraren etxearen egitura, Noraren janzkera eta sudurreko piercinga... Ondoren, Norak esandako esaldi bat gogoratuko dugu:

«—Ez, amak bekokian dauka hirugarren begia deitzen dioten sinboloa».

Ikasleak taldetan banatuko ditugu, eta sinbolo horri buruzko informazioa bilatzea proposatuko diegu (iturri fidagarriak kontsultatzea behar-beharrezkoa dela azpimarratuko dugu): Zer da hirugarren begia? Zertarako jartzen da? Zerez margotzen dute? Zer beste izen ditu?...

Azkenik, talde berdinetan, Indiako ohitura, kultura eta bizimodurari buruzko informazioa bilatu, aztertu eta bitxia iruditu zaien edo beren arreta piztu duen bat

aukeratzea eskatuko diegu. Hori egin ondoren, talde bakoitzak lortutako informazioa landuko du, eta ikaskideen aurrean azalduko.

Jarduera honi esker, beste kultura batzuetan murgiltzeko aukera izateaz gain, taldean lan egiten ikasiko dute.

## Guraso rockeroak

Liburuko pertsonaiak oso musikazaleak dira. 8. kapituluan Urkok Itoizen CD bat oparitzen dio Jarari. Aurrerago, Norak bere aitak ere Itoizen CD guztiak dituela aitortzen dio. Ikasleei agian taldea urruti geratuko zaie, baina ziur aski beren kantu gogoangarrienak ezagunak egingo zaizkie: *Lau teilatu*, *Hegal egiten*, *Marea gora*... Horietako batzuk entzungo ditugu, eta kantu horiek eta taldea ezagutzen duten galdetuko diegu. Taldeari buruzko zenbait datu emango dizkiegu: 1978an Mutriku eta Ondarroa inguruan sortu eta 1988an desegin zen. Hainbat estilo landu zituzten, hala nola, folka, popa eta rock progresiboa eta hamar disko kaleratu zituzten (azken biak bildumak).

Ondoren, gurasoek beraien adina zutenean zer musika-talde entzuten zituzten ikertzea eskatuko diegu. Talde bat aukeratu eta informazioa bilduko dute: taldeari buruzko datu aipagarrien laburpen bat, argazkiren bat, CDa...

Bilatutako informazioa ikaskideen aurrean azalduko dute laburki, eta azalpen bakoitzaren ondoren, taldearen kantu ezagun baten zatitxo bat jartzen saiatuko gara (ikasleek ekarritakoak edo interneten bilatuta).

Proposamenaren helburua beste garai bateko musika-taldeak eta musika estiloak ezagutu eta balioesten ikastea da. Gainera, jarduera honen bidez, kultura-trukea sustatzen da, aniztasuna lantzen da ikasgela barruan, eta gurasoek hezkuntza-prozesuan parte hartzea sustatzen da.

## Eztabaidatu

### Elikadura arazoak

Ikerketen arabera, 6 eta 18 urte arteko euskal haur eta gazteen %23k gehiegi pisatzen dute edo gizenak dira. Ikerketek, gainera, agerian uzten dute gazteen elikadura ohiturak eskasak direla: behartuta jaten dute, ez dute ongi gosaltzen, litxarrerria gehiegi jaten dute...

Eztabaidari hasiera emango diogu, galdera sinple batzuk eaginez: Zergatik eta zertarako jaten duzue? Otordua iristean, gustuz jaten duzue ala otordua errutina hutsa dela uste duzue? Elikagaien piramidea ezagutzen duzue? Haren arabera, gazteek orokorrean ongi jaten dutela uste duzue? Kirolik egiten duzue?

Nerabeek garrantzi handia ematen diote aspektu fisikoari. Galderak egiten jarraituko dugu: Zuen ustez, zergatik da hain garrantzitsua itxura gazteentzat? Batetik hamarrera, zein garrantzia ematen diozue? Konplejorik ba al duzue? Zein gorputz eredu goraipatzen dira sare sozialetan? Zer eredu erakusten dizkigute telebistan eta aldizkarietan? Gorputz perfektu horiek gugan eragina dutela esango zenukete?

Amaitzeko, liburuko 140. orrialdeko pasarte hau irakurri eta aztertuko dugu:

- «—Dieta antzekoa jarri didate. Egunean zer jan behar dudan.  
—Ba, hori oso ondo dago, ez?  
—Ez. Nik ez dut jan nahi, ezin dut jan. Gorrotoa diot janariari!».

Ihintzak sentitzen duenaz hitz egingo dugu: Zuen ustez, nola sentitzen da Ihintza? Zer esango zeniokeite laguntzeko? Egiten ari dena arriskutsua dela iruditzen zaizue? Ezagutzen al duzue elikadurarekin edota itxurarekin zerikusirik duen beste gaixotasunik?

## Nahitaezko lekualdaketak

Aitaren lanpostu berriak eta Bartzelonara joan beharrak ustekabean harrapatu du Jara. Nora eta Xabat, ordea, jada ohituta daude leku batetik bestera aldatzen ibiltzeaz. Liburuko 29. orrialdeko pasarte hau irakurriko dugu:

- «—Ze ondo! Niri ikaragarri gustatuko litzaidake herriz herri bizitzeko aukera izatea! —esan zuen Ihintzak.  
—Ez pentsa, azkenerrako nekagarria da. Beti jende berria ezagutzen, sustrairik izango ez bazenu bezala».

Pasarte hau aztertu eta eztabaida pizteko zenbait galdera proposatuko ditugu:

- Zer esan nahi du Norak «sustrairik izango bazenu ez bezala» horrekin? Ados al zaudete? Ihintzaren iritzi berekoak al zarete? Zergatik?
- Zuen ustez, zein dira lekuz aldatzearen abantailak? Eta desabantailak? Gustatuko litzaizueke lekuz aldatzea? Zeren falta sumatuko zenukete gehien?

Ondoren, liburuko 35. orrialdeko pasarte hau gogoratuko dugu:

- «—Badakit hau oso gogorra dela zuretzat, baina oker zaude. Hartzen dugun erabakia hartzen dugula, argi izan behar duzu zure onerako izango dela. Zuretzat onena zer, huraxe aukeratuko dugu. Baina aitaren enpresan gauzak ez badira hobetzen, oso posible da enpresa ixtea. Eta aita kalean geratzea. Halere, oraindik ez dugu baietzik eman».

Eztabaidarekin jarraituko dugu: Zer iruditzen zaizue gurasoen jokabidea? Erabakia hartzean Jara kontuan hartu dutela uste duzue? Aitaren egoera ez da erraza eta

gurasoak erabaki zaila hartu beharrean daude. Zer egingo zenukete Jararen gurasoak bazinate? Zein da gurasoek hartu dezaketen erabakirik onena?

Amaitzeko, norbaitek antzeko egoerarik bizi izan duen galdetuko diegu, eta beren bizipenak kontatzera animatuko ditugu.

## Sortu

### Mandala

Norari esker, Jarak eta Ihintzak Indiako hainbat ohitura ezagutu dituzte. Hori aitzakia hartuta eta bide beretik jarraituz, mandala bat egitea proposatuko diegu ikasleei.

Hasteko, mandala bat zer den badakiten galdetuko diegu, eta ondoren azalpena eman: Indarren arteko oreka irudikatzen duten irudiak dira mandalak. Duela milaka urte sortu ziren Tibetean, budismoan eta hinduismoan, eta barne oreka berreskuratzeko, norbere burua ezagutzeko eta barne sosegua eta lasaitasuna lortzeko baliagarriak direla uste da. Nerabeek beren buruekiko zalantza, kezka eta ziurtasun-gabezia asko izan ohi dituztenez, (liburuan ere oso agerian daudenak), autoestima hobetzen laguntzen omen duen teknika hau probatuko dugu gelan.

Horretarako, mandalen ereduak eramango ditugu gelara (erraz aurki daitezke, bai liburu-dendetan, bai interneten ere). Giro aproposa sortuko dugu: musika lasaia, intsentsua, argi leuna, kandelak... Margotu bitartean ahalik eta isilen egon eta beraien ahultasunetan eta batez ere indarguneetan pentsatzeko eskatuko diegu ikasleei.

Giroa apurtu edo ikasleak aspetu aurretik amaiera emango diogu jarduerari, eta nola sentitu diren galdetuko diegu.

IZENA: ..... MAILA: .....

## **JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK**

Jasone Osoro

### **1. Jara**

#### **1. Nor da Jara?**

Irakurri, eta adierazi zer esaldik deskribatzen duten Jara.

|                                                                | <b>Bai</b> | <b>Ez</b> |
|----------------------------------------------------------------|------------|-----------|
| 13 urte ditu; ume izateari utzi eta emakume bihurtzen hasi da. |            |           |
| Hiri handi batean bizi da.                                     |            |           |
| Bihotz onekoa da, eta lagunak estimatzen ditu.                 |            |           |
| Maitasun kontuetan oso argi ditu gauzak.                       |            |           |
| Ez zaio bere gorputza gustatzen eta janariarekin arazoak ditu. |            |           |
| Australopitekus musika-taldeko partaidea da.                   |            |           |

### **2. Nora eta Xabat**

Nora eta Xabat anai-arrebek Jararen lagun-taldea aztoratu dute. Azaldu Jarak, Ihintzak eta Urkok zer harreman duten iritsi berriekin eta Nora eta Xabat ezagutzeak zertan aldatu duen beren bizitza.

- Jara

.....

.....

.....

- Ihintza

.....

.....

.....

- Urko

.....

.....

IZENA: ..... MAILA: .....

## **JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK**

Jasone Osoro

### **3. Une erabakigarriak**

- Azaldu gertakari hauek zer ondorio duten eleberriaren garapenean.

1. Jarak eta Ihintzak Xabat ezagutu dute.

.....

.....

2. Jarak Urko ez zaiola uste bezain beste gustatzen aitortu die Ihintza eta Norari.

.....

.....

3. Jara, Ihintza eta Nora arropa probatzen aritu dira Noraren etxean.

.....

.....

4. Jara Noraren antzera jantzita azaldu da eskolan.

.....

.....

5. Rita, Xabaten neska-laguna, ezustean agertu da Anabasan.

.....

.....

- Erreparatu liburuaren azaleko irudiari. Jararen esanetan «sekula ahaztuko ez duen» une erabakigarri bati dagokio. Deskribatu zer ari den, eta azaldu Jarak gau horretan zer ikusi eta zertaz jabetzeko aukera izan zuen.

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: ..... MAILA: .....

## **JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK**

Jasone Osoro

### **4. Esaldi eginak**

Azaldu, zure hitzak erabilita, zer esan nahi duten liburuan ageri diren esamolde hauek. Behar izanez gero, bilatu liburuan, zer testuingurutan esaten diren gogoratzeko.

- Lur jota egon (146. or.):
- Pil-pilean egon (106. or.):
- Merkatuan izan (44. or.):
- Zur eta lur geratu (70. or.):
- Moztuta egon (129. or.):
- Auzo-lotsa sentitu (131. or.):

### **5. Sentimenak pil-pilean**

Irakurri arretaz liburuko pasarte hauek, eta azaldu Jarak eta Ihintzak zer sentitzen duten.

«Jara bihotz onekoa zen, eta lagunak estimatzen zituen. Ihintzak, aldiz, bere burua makurtu baino nahiago bakarrik geratu. Eta horrek min egiten zion». (77. or.)

.....  
.....

«Bazekien azken egunetan ez zela oso ongi portatu Urkorekin. Ez zekien zer nahi zuen. Alde batetik, berarekin egon nahi zuela uste zuen, baina, bestetik,... Korapiloz josia zeukan sabela». (44. or.)

.....  
.....

«Gasazko gona harekin eta Norak utzitako alkandorari esker, Jarak ispilu aurrean islatua ikusi zuena oso bestelako neska izan zen. Bere filmeko protagonista sentitu zen estreinakoz». (84. or.)

.....  
.....


IZENA: ..... MAILA: .....

## **JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK**

Jasone Osoro

### **6. Jararen hitz gurutzatuak**

Prest al zaude? Ba, hartu bolaluma, irakurri argibideak eta osatu hitz gurutzatuak.



#### **HORIZONTALAK**

1. Jararen lagun taldea bildu ohi den taberna «nahaspilatsua».
2. Euskal talde ezaguna, Urkok talde honen CDa oparitu zion Jarari.
3. Elikadura errefusatzean datzan nahasketa psikikoa.
4. Osagarri honen atzean babestu zen Jara mozorro-festan.
5. Xabatek jotzen duen instrumentua.

#### **BERTIKALAK**

6. Indiako jantzi tradizionala.
7. Jararen laguna, oso izen melodikoa duena.
8. Etorkizunean Jara hartuko duen hiria.
9. Jara eta bere lagunak hitzetan, harrigarria, ikaragarria.
10. Ingelesetik hartutako mailegua, itxura edo estiloa adierazteko erabiltzen dena.

IZENA: ..... MAILA: .....

## **JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK**

Jasone Osoro

### **7. A ze oroimena!**

Oroimen ona al duzu? Osatu ondorengo elkarrizketak eta erakutsi irakurritako xehetasun guztiak gogoratzeko gai zarela. Jarduera amaitzean, hartu liburua eta egiaztatu zure erantzunak zuzenak ala okerrak diren.

—Txorizo-tortilla! —esan zuen harriduraz Norak.

—Ez zaizu gustatzen?

—..... —azaldu zion.

—Zerbait gehiago nahi? —galdetu zion dendariak.

Ihintzak irribarre egin zuen. Erdi lotsaturik.

—.....

—Gustatzen al zaizu nire *look* berria? —galdetu zion Jarak.

—..... —onartu zuen Urkok.

### **8. Jeloskor nago**

Inbidia, zeloak eta lehia oso presente daude Jararen abentura berri honetan. Gogoratu jeloskor sentitu zinen une bat. Azaldu zerk eragin zuen zu horrela egotea, eta saiatu nola sentitu zinen azaltzen.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: ..... MAILA: .....

## **JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK**

Jasone Osoro

### **9. Aholkuak**

Jarak eta bere lagunek zalantzak, zeloak eta haserreak bizi izan dituzte eleberri honetan. Izan ere, nerabea izatea ez da erreza. Lagunduko al diezu? Adierazi zer irizten zaizkizun jokabide hauek eta idatzi hobetzeko emango zenizkiekeen aholkuak.

| <b>Jokabideak</b>                                                                                                                                                                           | <b>Iritziak eta aholkuak</b> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------|
| Urkok Jara eta Ihintzaren elkarrizketa bat entzutean jakin du Jarak berarekin mozteko asmoa duela. Jarari estualdi hori ez pasarazteako, aurea hartu eta harremana berak moztea erabaki du. |                              |
| Jara eskolan Noraren antzera jantzita agertu denean, Ihintzak eskolako guztiek Noraren imitazio faltsua ematen duela diotela eta beraiekin ados dagoela esan dio.                           |                              |
| Mozorro-festan, Jarak Ihintza komunean botaka entzun du. Komunetik atera denean, maskararen atzean gordeta, ez dio ezer esan bere lagun minari.                                             |                              |
| Jarak Norari aditzera eman dio Urko jada ez zaiola gustatzen. Hala ere, handik gutxira Norak Urkorekin irtetzen hasi dela esan dionean, Jara berarekin haserretu da.                        |                              |

IZENA: ..... MAILA: .....

## **JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK**

Jasone Osoro

### **10. Kaixo, lagun!**

*Jara* saileko hirugarren aleak zer kontatuko digun jakiteko gogoz? Saiatu zer gertatuko den asmatzen! Demagun hilabete pasatu dela Jara Bartzelonara joan zenetik, eta ordudanik Jarak eta Ihintzak ez dutela elkarren berririk izan. Jar zaitez neskabilen azalean eta idatzi bi gutun denbora luze horretan zer gertatu den kontatuz: Zer moduz dabil Jara Bartzelonan? Maitemindu al dira berriz? Norak eta Xabatek herrian jarraitzen dute?

Kaixo, Ihintza! .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Kaixo, Jara! .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: ..... MAILA: .....

## **JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK**

Jasone Osoro

### **Irakurmen-testa**

Galdera hauetako bakoitzean, aukeratu egokia iruditzen zaizun erantzuna, eleberria ondo ulertu duzun ikusteko.

#### **1. Zergatik jartzen du zalantzan Jarak Urkorekiko sentitzen duena?**

- ☐ a Urkok berarekin gaizki jokatzeko duelako.
- ☐ b Urkoren musu emateko modua ez zaiolako gustatzen.
- ☐ c Lehen musua ez zitzaiolako pentsa bezain beste gustatu eta mutil gehiago ezagutu nahi dituelako.

#### **2. Zergatik moztu du Urkok Jararekin?**

- ☐ a Jara berarekin gustura ez dagoela konturatu delako.
- ☐ b Nora gustatzen zaiolako.
- ☐ c Jarak berarekin mozteko asmoa duela badakielako, eta ez duelako nahi lagunaren aurrean barregarri geratu.

#### **3. Zer dela eta etorri dira Nora eta Xabat herrira bizitzera?**

- ☐ a Xabatek aurreko eskolan arazoak izan zituelako.
- ☐ b Aitaren jaioterrira itzuli nahi zutelako.
- ☐ c Aitaren lan-kontuengatik.

#### **4. Zer uste dute Ihintzak, Jarak eta Norak bikotekidea izateari buruz?**

- ☐ a Ezagutzen duten lehen mutila betirako maite behar dutela, eta, beraz, tentu handiz aukeratu behar dutela.
- ☐ b Gazteegiak direla inoren besoetan lotzeko.
- ☐ c Bikotekidea izateko adina dutela jada.

#### **5. Zergatik erabaki du Jarak berak egindako gona gehiago ez janztea?**

- ☐ a Zozoa eta tipikoa izan arren, bere betiko irudia berea duela konturatu delako.
- ☐ b Eskolako guztiek, batez ere Urkok, barre egin diotelako.
- ☐ c Ipurdi eta izter ikaragarri galantak egiten dizkiola iruditzen zaiolako.

IZENA: ..... MAILA: .....

## **JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK**

Jasone Osoro

### **6. Batzuetan Jarak Nora izan nahi luke. Zergatik?**

- ☐ a Desberdina izan eta mutilak erakarri nahi lituzkeelako.
- ☐ b Xabat ahalik eta denbora gehien alboan izateko.
- ☐ c Bera bezala herriz herri bizitzea gustatuko litzaiokeelako.

### **7. Zergatik dago Ihintza Jararekin minduta?**

- ☐ a Mozorro-festan bakarrik utzi zuelako.
- ☐ b Noraren laguna egin eta bera baztertuta utzi duela sentitzen duelako.
- ☐ c Berari gustatzen zaion mutila gustatzen zaiolako.

### **8. Nork parte hartu du Anabasako dantza norgehiagokan?**

- ☐ a Ihintzak eta Jarak.
- ☐ b Norak eta Jarak.
- ☐ c Ihintzak eta Ritak.

### **9. Zergatik zorabiatu da Ihintza?**

- ☐ a Edandako kalimotxoak kalte egin diolako.
- ☐ b Aurreko egunetan ezer gutxi jan duelako.
- ☐ c Nerbioek gainez egin diotelako.

### **10. Bartzelonarantz abiatu justu aurretik, sorpresa itzela jaso du Jarak. Zer gertatu da?**

- ☐ a Aitaren nagusiak deitu du, Bartzelonako lan-eskaintza bertan behera gelditzen dela esateko.
- ☐ b Urkok bere neska-lagun formala izatea eskatu dio.
- ☐ c Lagun guztiak Anabasan bildu dira bera agurtzeko.

# Erantzunak

## JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK

Jasone Osoro

### 1. Nor da Jara?

|                                                                | Bai | Ez |
|----------------------------------------------------------------|-----|----|
| 13 urte ditu; ume izateari utzi eta emakume bihurtzen hasi da. | X   |    |
| Hiri handi batean bizi da.                                     |     | X  |
| Bihotz onekoa da, eta lagunak estimatzen ditu.                 | X   |    |
| Maitasun kontuetan oso argi ditu gauzak.                       |     | X  |
| Ez zaio bere gorputza gustatzen eta janariarekin arazoak ditu. |     | X  |
| Australopitekus musika-taldeko partaidea da.                   |     | X  |

### 2. Nora eta Xabat

- E.E.: Jara: Nora Jararen laguna egin da eta Xabat gustuko du. Nora eta Jara hain lagunak izateak Ihintza eta Jararen artean tirabirak sortuko ditu. Xabatengandik erakarria sentitzean, berriz, Urkorekiko dituen sentimenduak zalantzan jarriko ditu.
- Ihintza: Nora Ihintzaren laguna da eta Xabatekin enrollatzen hasi da. Nora eta Jara hain lagunak egin direla ikusteak, lagunak bakarrik utzi duela sentiaraziko dio. Xabatekin bere bigarren maitasun desengainua biziko du Rita izeneko neska-lagun bat duela jakiten duenean.
- Urko: Jararekin hautsi ondoren, Urkok Norarengan jarriko ditu begiak eta Xabat bere laguna bihurtzen da.

### 3. Une erabakigarriak

- E.E.: 1. Biak Xabat konkistatzen saiatuko dira, eta horrek inbidia, zeloak eta lehia eragingo du bien artean.
- 2. Lagunari jada Urko gustatzen ez zaiola pentsatzean, Nora Urkorekin irtetzen hasiko da. Ondorioz, Jara jeloskor sentituko da eta Norarekin muturtuko da.

# Erantzunak

## **JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK**

Jasone Osoro

3. Ihintza lagunei ondo geratzen zaizkien arropak berari txiki geratzen zaizkiola konturatu da eta haserre alde egin du, bere arazoaren lehen zantzuak agerian utziz.

4. Ihintzak Noraren imitazio faltsua dela esango dio, eta haserretu egingo dira.

5. Xabaten arreta bereganatu nahian, Ihintza eta Rita dantzan hasiko dira. Ihintza zorabiatu egingo da, eta anbulatorioan amaituko du.

- E.E.: Ihintza eskolan antolatutako mozorro-festan dago. Amak emandako maskararen atzean ezkutatuta, Ihintza komunean oka egiten aritu zela jakin zuen, baita Urko eta Nora elkarri hurbiltzen hasiak zirela ere. Eskolako neska batzuri Xabat eta Ihintza musuka ari zirela ere entzun zien.

### **4. Esaldi eginak**

E.E.: Lur jota egon: etsita egon, indargabe eta ahul egon, goibel egon.

Pil-pilean egon: unerik onenean egon, sekulako giroa egon.

Merkatuan egon: bikoterik ez izan, libre egon.

Zur eta lur geratu: harrituta geratu.

Moztuta geratu: lotsatu, zer esan jakin gabe geratu.

Auzo-lotsa sentitu: beste norbaitek egindakoaz lotsa sentitu.

### **5. Sentimenak pil-pilean**


- E.E.: Ihintzari kosta egiten zaio zerbait gaizki egin duela onartzea eta barkamena eskatzea. Jara bere lagunik onena da, haserre albo batera utzi eta harekin bakea egin nahi luke, baina barruan zerbaitek ez dio uzten hori egiten. Minduta dago eta pertsona hobe izatea gustatuko litzaioke.
- Jararen sentimenduak nahasiak daude. Ez daki Urkorekin egon nahi duen, baina beste alde batetik ez du nahi bera gabe egon.
- Gehiengoak egiten duenari jarraitu beharrean, lehen aldiz berak nahi duena eta nahi duen eran egiten duela sentitzen du. Ongi sentitzen da, indartsu, boteretsu.

# Erantzunak

## JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK

Jasone Osoro

### 6. Jararen hitz gurutzatuak



### 7. A ze oroimena!

—Ez dut sekula txorizo-tortillarik jan! —azaldu zion.

—Bai, zera... Dozena erdi txokolatina, mesedez.

—Arraro zaude —onartu zuen Urkok.

### 8. Jeloskor nago

E.L.

### 9. Iritziak eta aholkuak

- E.E.: Hobe litzateke Jarak hasieratik Urkori nola sentitzen zen azaldu balio, Urko kanpotik enteratu behar ez izateko.
- Ihintzak gauzak beste era batera esan zitzakeen, Jara ez mintzeko.

# Erantzunak

## **JARA, BIKIAK ETA BIKOTEAK**

Jasone Osoro

- Haserre egon arren, Ihintza lagundu behar luke, bere laguna da eta.
- Hobe litzateke Norari Urkori buruz sentitzen duena argi azaldu balio.

### **10. Kaixo, lagun!**

E.L.

### **Irakurmen-testa**

1 c; 2 a; 3 c; 4 b; 5 a; 6 a; 7 b; 8 c; 9 b; 10 c.